

Iñaki Barcena

EKOLOGISTAK MARTXAN-EKO KIDEA

Garona itxi orain!



GARONA. Energiari buruzko ezbaia piztu du zentral nuklear zaharkitu (1971) honek uda hasieran. Eta nago ez dela amatatuko Zapaterok hartutako erabakiarekin, 2013. urteko uztailean ixtearekin, hain justu. Erabilitako argudioak bai, mugimendu antinuklear eta ekologistarenak izan dira (segurtasuna, hondakinak, elektrizitatearen esportazioa, produkzio eskasa...), baina Madrilgo Gobernuak beste lau urtez luzatu du errektore nuklearraren funtzionamendua. Partiduko buruzagi nagusien presio handiak izan dira noski, baina PSOEek horrela ez du hauteskundeetan agindu zuena bete. Lehenik eta behin, 2013an ezin dutelako ziurtatu eurak Gobernuan egongo direnik. *Tempus* politikoak laburrak dira, baina zortzi urte izan dituzte energia politika aldatzeko, eta berba politikak aparte fruituak ez dira ikusten, batez ere energia nuklearraren alorrean.

ITXI. Salomonen erabaki honek ez du ia inor kontentatzen, Madrilgo Gobernuaz kanpo. Tirabira mediatiko ederrak irakurri eta entzun ditugu, eta mobilizazioak ere egon dira alde bietan. Langileak ere irten dira kaleetara. Derrepentean berrehun eta piku izatetik, -Jesukristoren mirakuluetan bezalalau, bost eta hamar bider gehiagoz zenbatuak izatera pasatu dira. Iberdrola eta Endesako



INIGO AZKONA

langile kontratatutak dira eta enpresa hauek euren webguneetan berde argiz iragartzen dutenagatik, ez lukete arazo handirik eduki behar energia berriztagarrien alorrean birkokatzeko, Tobalina aranean bertan. Eguzki energia dugu bidea eta enpresa hauetako negozio gizonak ongi dakite hori, baina zer egingo dute duela urte asko amortizaturiko errektorearekin?

ORAIN. Herri mugimenduetatik landa, Eusko Legebiltzarrak eta Arabako Aldundiak ere Garona ixtea eskatu dute, sozialisten botoekin eta PPren aurkako jarrera baka-rrarekin. Zapaterok eta Sebastianek esan dutenarengatik, teknikoki, politikoki, laboralki eta energetikoki erabakirik egokiena hartu omen dute. Gakoa da noren txaloak jaso dituzten? Inorenak ere ez! Hortxe dugu gobernu zentralaren akatsa. Enpresak esan du helegitea jarriko duela, luzapen horren aurka. Ekologistentzat beste behin ere, sozialdemokraziaren itxurakeria errepikatu da. Hirugarren bideak ez du norabiderik, antza. Garoñak ez du etorkizunik eta Zapaterok aukera ezin hobea galdu du antinuklearren boto apur batzuk biltzeko. Gizarte mugimenduen *tempusak* ez dira hauteskundeekin nahasten eta orain PSOEek ezin izango du Garoñaren patata beroa esku tartetik kendu. ■

«
Gizarte mugimenduen *tempusak*
ez dira hauteskundeekin
nahasten eta orain PSOEek ezin
izango du Garoñaren patata
beroa esku tartetik kendu
»

TXANDAN

Edu Zelaieta

Jakin eta jakin



H e z k u n t z a
eredu berria
aurkeztu du

Isabel Zelaa sozialistak. Proposamena iragartzeko, honako hau entzun diot sailburu berriari telebistan, balizko lorpenak nabarmendu nahian-edo: "...unos alumnos más cultos, más sabios y más dotados".

Hau entzunik, agian, guraso batzuk pozik sentituko dira, egitasmo honi esker beren seme-alabak azkarragoak eta jakintsuagoak izanen direla pentsatuz. Ni, ordea, kezkatu samar gelditu naiz: zer pertsona mota "loritu" nahi ditugu halako eredu baten bidez?

Adierazpen -hanpatu- horien arabera, ezagutza bide da ardatza: ikasturtez ikasturte buruan edukiak metatzea. Izan bitzate, bada, gure ikasleek *Trivialeko* galdera guztientzako erantzunak. Jabe bitez, hortaz, kulturaz eta jakinduriaraz.

Hippi eta zientzialari gehienek, aldiz, hezkuntzaren ardatza pertsonak izan behar duela proposatzen dute. Halaber, gizakia osoki garatzeko, alderdi intelektualarekin batera emozionala, fisikoa, soziala eta etikomoral espazitutuki landu behar direla diote.

Lastima, beraz, autonomiaz, gaitasun kritikoaz, zoriontasunaz edota oreka emozionalaz deus ere aditu ez izana. ■